



## Bertan bizi diren sei pertsona gehiago errekuperatu dira koronabirusetik, eta 66 dira dagoeneko gainditu dutenak

Gaixotasuna zuten Arabako adinekoren egoitzen 2 erabiltzaile hil dira

**Gasteiz, 2020ko apirilaren 19a.** Apirilaren 17ean eguneratu ziren azken datuen arabera, COVID-19 gaixotasuna zuten Arabako adienekoren egoitzen beste 2 erabiltzaile hil dira. Heriotza horien arrazoia da zenbait egoiliarren osasunak okerrera egin duela azken asteetan. Heriotzak ospitaleetan nahiz egoitzetan bertan gertatu dira. Era berean, 66 egoiliar sendatu dira jada koronabirusetik.

Koronabirusak sortutako osasun krisia hasi zenetik, guztira 133 pertsona hil direla kontabilizatu da. Haietarik, 73 zentro pribatutan bizi ziren, beste 58 foru egoitzetan eta gainerako 2ak gure lurraldeko udal zentroetan.

Bestalde, pixka bat handitu da pertsona kutsatuen kopurua (356); izan ere, COVID-19k kutsatutako erabiltzaile bat gehiago da aurreko egunaren aldean.

Egoitzek pertsona horietatik 19 ospitaleetara bideratu dituzte, osasun egoera larrian egoteagatik, eta koronabirusa daukaten pertsona gehienak (337) artatzen ari dira. Positibo eman duten kasuetatik, 209 Araban dauden zentro pribatuetako erabiltzaileak dira, 140 foru egoitzetan bizi dira, eta gainerako 9 pertsonak lurraldeko udal ekipamenduetan.

Zentro horiek 3.900 plaza inguru dituzte 96 ekipamendutan banatuta, egoitzen, etxebizitza komunitarioen eta apartamentu tutelatuen artean. Lau egoitzatik hiruk ez dute COVID-19 kasurik erregistratu.

Ezintasunen bat dutenentzako egoitzetan ez da aldaketarik izan. Zentro horietako bi pertsona sendatuta daude koronabirusa gainditu ondoren.